

Getxo > MEETING <

GETXO MEETING: OHIKO GALDERAK

- **Enpresa bereko 2 pertsona etor daitezke?**

Noski, izena emateko orduan hala adierazten baduzue.

- **Udalerritik kanpoko enpresek parte har dezakete?**

Programa hau Getxoko ekintzaile eta enpresentzat pentsatuta dago batik bat, baina udalerritik kanpoko jendeak ere parte hartu ahal du (gehienez lau pertsonak), Getxorekin lotura profesionala baldin badaukate.

- **Enpresa oraindik eratu gabe badago, parte har dezaket?**

Bai. Getxo Meeting enpresa bat daukan (edo autonomia den) edo enpresa bat sortzeko zorian dagoen pertsona orori zuzenduta dago.

- **Norbait gonbidatu dezaket parte hartzera?**

Bai. Beharrezkoa izango da pertsona horrek enpresa bat edo enpresa-proiektu bat edukitzea eta izena ematea.

- **Nola eman dezaket izena Getxo Meetingen?**

Telefonoz dei dezakezu Getxolanera (94 466 01 40); email bat bidali (getxopro@getxo.eus), edo Getxo Elkartegira etorri, Ogoño kaleko 1.an (48930 Getxo)

- **Saio guztietarako eman behar dut izena?**

Getxo Meetingen saioak independenteak dira. Hau da, nahi duzun datetan parte har dezakezu. Beharrezkoa da parte hartuko duzun saioetako bakoitzean izena ematea, guk jakin dezagun guztira zenbat pertsona etorriko zareten (eta saio bakoitzean dagoen aforoa gaintu ez dezagun). Saio guztietan parte hartu gura baduzu, denetan izena emateko eskatu ahal diguzu (halere, eskatzen dizugu saioaren batera ezin baduzu etorri ahalik eta lasterren jakinarazteko).

- **Noiz amaituko da Getxo Meeting?**

Getxo Meeting programak, oraingoan, ez dauka amaiera datarik. Aitzitik, ekintzaile eta enpresentzako etengabeko topaketa-puntua izatea nahi dugu. Atsedean hartuko dugu Gabonetan, Aste Santuan, udan... 2018. urterako dauden datak hauek dira:

- Urtarrilaren 18an
- Otsailaren 1ean
- Otsailaren 15ean
- Martxoaren 1ean
- Martxoaren 15ean
- Apirilaren 12an
- Apirilaren 26an
- Maiatzaren 10ean
- Maiatzaren 24an
- Ekainaren 7an
- Ekainaren 21ean
- Irailaren 20an
- Urriaren 4an
- Urriaren 18an
- Azaroaren 8an
- Azaroaren 22an
- Abenduaren 13an

- **Ze gai jorratzen dira Getxo Meetingen?**

Getxo Meetingen, enpresentzat eta profesionalentzat interesgarriak diren hainbat gai lantzen dira, **bezeroekin, estrategiarekin, burokraziarekin, aliantzekin...** zerikusia dutenak. 2016ko abenduaren 1eko hasiera-saioan parte hartu zuten pertsonen proposatutako gaien zerrenda osoa berrikusi ahal duzu. Zerrenda horretatik abiatzen gara saioak diseinatzeko orduan, baina etortzen diren pertsonen eskatzen dituzten gaiak gehitu daitezke.

Saio bakoitzean **aztertu diren gaien laburpena** ere ikus dezakezu hemen: <http://www.getxo.eus/es/getxolan/noticias/218>

Hala eta guztiz ere, pertsona batzuek besteei egiten dizkieten ekarpenak dira funtsezkoena. Franz Berbach psikologo alemanaren arabera, **persona ekintzaileek "arazo komunitarako konponbideak truka ditzakete, baita bata bestearengandik ikasi** eta gauak izarririk eta ideiarik gabe ematen dituzten bakarrak ez direla konturatu ere". Horretarako, **bai belaunaldiak, bai sektore profesionalak nahastea** gomendatzen du. Hori da, hain zuzen ere, gure topaketetan egiten duguna.

- **Zalantza gehiagorik?**

Deitu Getxolanera, 94 466 01 40 telefonora, edo idatzi hona: getxolan@getxo.eus